

**Irakurri arretaz ondoko esaldiak, ondo ahoskatzen saiatu eta esan bietatik zein dagoen ondo idatzita. Esaldiok telebistako zein irratietako informazio saioetan esateko moduan omen daude. Egilea: Gorka J. Palazio. CC 3.0 lizentzian (by-share alike). Euskal Herriko Unibertsitatea.**

0.A- Al Gore estatubatuarrak, Luxenburgoko Dukerri Handia bisitatu ostean, Euskal Herriko bidea hartuko du mintzaldi bana emateko Bilbaon eta Gasteizen.

0.B- Al Gore estatubatuarrak, Luxemburgeko Dukerri Handia bisitatu ostean, Euskal Herriko bidea hartuko du mintzaldi bana emateko Bilbaon eta Gasteizen.

---

1.A- Zenbait manifestaldi jendetsu egin dira azken egunotan Kazakhstango Errepublikan

1.B- Zenbait manifestaldi jendetsu egin dira azken egunotan Kazajstango Errepublikan

---

2.A- Litekeena da Marokon edo Gambian izatea Aldaketa Klimatikoari buruzko datozen topaketak

2.B- Litekeena da Marokkon edo Ganbian izango dira Aldaketa Klimatikoari buruzko datozen topaketak

---

3.A- Boliviari gutxi dira bertako hiru hizkuntzak, kitxua, aimara eta gaztelania alegia, menperatzen dituztenak.

3.B- Boliviatar gutxi dira bertako hiru hizkuntzak, kitxua, aimara eta gaztelania alegia, menperatzen dituztenak.

---

4.A- Georgiako hiriburuan, Tbilisin alegia, euskaldunak non bizi diren eta georgiarrak eta euskaldunak ahaideak izan daitezkeela dakite askok.

4.B- Georgiako hiriburuan, Tiflisen alegia, euskaldunak non bizi diren eta georgiarrak eta euskaldunak ahaideak izan daitezkeela dakite askok.

---

5.A- Abkhaziarrak georgiarren senideak dira hizkuntza aldetik; osetiarrek, oster, kurdoen hizkuntzaren multzokoa dute mintzaira, senidetasunik gabekoa, alegia.

5.B- Abjaziarrak georgiarren senideak dira hizkuntza aldetik; osetiarrek, oster, kurdoen hizkuntzaren multzokoa dute mintzaira, senidetasunik gabekoa, alegia.

---

6.A- Euskal arrantzaleek Seychelletako Errepublikara jo dute ezinbestean, itsas-piraten beldur.

6.A- Euskal arrantzaleek Seitxelletako Errepublikara jo dute ezinbestean, itsas-piraten beldur.